PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK EMATEA BASQUE DIGITAL INNOVATION HUB-A (BDIH) KUDEATZEKO- 2021005 Harmonizatua espediente zenbakia

1.- AURREKARIAK

Basque Digital Innovation Hub-a (BDIH) irabazi-asmorik gabeko ekimen bat da, eta RIS3 Espezializazio Adimenduneko Euskal Estrategiarekin loturik dago, enpresa-ehunari teknologia digital eta jasangarriak esperimentatzen laguntzeko.

Aktiboen eta zerbitzuen sare konektatu bat da, eta eraldaketa digital jasangarria lortzen laguntzen die enpresei; hau da, produkzio-teknologia digital eta jasangarriak probatzeko, baliozkotzeko, prestatzeko eta ikertzeko azpiegitura bat, enpresa-sarearen eskura ipinita dagoena. Sare horrek eboluzionatu egin du, eta Euskadiko eraldaketa digitaleko eta jasangarriko eragile nagusiak batzen dituen ekosistema bat osatu du; hala, jardun-eremuak gaitasun digitalen, berrikuntzaren eta networkingaren arloko prestakuntza-eremuetara zabaldu ditu, eta finantzaketa bilatzeko laguntza eskaintzen du.

BDIH lankidetza-sare publiko-pribatu bat da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko hainbat motatako eragileek osatua (unibertsitateak, teknologia-zentroak, lanbide-heziketako zentro aurreratuak eta enpresetako I+G unitateak). Horiek guztiek, partzuergo gisa elkarturik, irabazi-asmorik gabeko zerbitzuak ematen dizkiote industria-ekosistemari, bereziki ETE-ei; hori horrela, haien aktiboak ez ezik (azpiegiturak, laborategiak, ekipamenduak, softwarea) gaitasun zientifiko-teknologiko berritzaileak eta bikainak ere konektatzen ditu (pertsonak), RIS3 Espezializazio Adimenduneko Euskal Estrategiaren ingurunean (industria adimenduna, energia eta osasuna). Eragile horiek SPRIk koordinatutako partzuergo bateko kideak dira.

Gaur egun, kide horiek aktiboak emateaz gainera zerbitzuak ere eskaintzen dituzte bost nodo teknologikoren alorrean (fabrikazio gehigarria, robotika malgua, zibersegurtasuna, material aurreratuak, makina adimendunak eta konektatuak), bai eta erakustaldi-nodo baten inguruan ere (Data Driven Solutions). Halaber, aurreikusita dago beste bi nodo sortzea ere (sare elektriko digitalak, eta gailu medikoak eta osasun digitala), eta, horretaz gainera, aktibo eta zerbitzu berriak gaineratu nahi dira makina adimendun eta konektatuen nodoan. Horrek kide berriak batzea ekarriko du.

Esperimentatzeko, baliozkotzeko, prestatzeko eta ikertzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten kideen jarduera osatzeko, BDIHk hainbat bazkide estrategiko ditu, eta horiek guztiek babesa ematen diote euskal industriari, eraldaketa digitala eta jasangarria bultzatzeko zerbitzuak eskainiz hainbat alorretan, hala nola prestakuntzan, finantzaketa-iturriak bilatzen eta berrikuntza-ekosistema eta -sareak osatzen.

BDIHren industria-eskaria aktibatzeko, SPRIk BDIH Konexio laguntza-programa jarri du abian, euskal manufaktura-enpresei laguntza emateko, BDIH esperimentazio- eta testatze-azpiegitura eskura izan dezaten, eta azpiegitura horrek eskainitako konexioa eta jakintza balia ditzaten.

Helburu hori gauzatzeko, laguntza teknikoa emango da enpresok ekintza-plan bat egiteko, eta, hala, BDIHren nodoek eskaintzen dituzten teknologia digitalak xurgatzeko gaitasuna areagotu dezaten.

Europar Batasunaren eremuan, 2020ko martxoan abian jarri berri den Industria Estrategiak aitortzen du *Digital Innovation Hubs* (DIH) estrategiak industriarako duen garrantzia. Estrategia horrek agerian uzten du Europako industriak are «digitalagoa» izan behar duela mundu zabalean lehiakorrak izaten jarraitzeko, eta, horretaz gainera, «ekologikoagoa» eta «zirkularragoa» ere izan behar dela, EBko Itun Berdearen esparruan.

Espero da Digital Innovation Hubs (DIH) nodoek egiteko erabakigarria izango dutela Europako industriaren eraldaketa digitala bultzatzeko, eta, itxaropen horiek babesteko, aurreikusten da Europar Batasunaren 2021-2027 aurrekontu-programazioak nabarmen areagotuko duela horietarako bideraturiko finantzaketa, hainbat tresna baliatuz –bereziki, Europa Digitala programa (DEP, ingelesezko siglaren arabera)–.

Europa Digitala programak Europako gizartearen eta ekonomiaren eraldaketa digitala bultzatuko du, eta *European Digital Innovation Hubs* (EDIH) nodoko erakundeetara bideratuko da.

BDIH Europako beste Digital Innovation Hub batzuekin konektatuta dago (nazioarteko aliatuak). Hori horrela, Europako Batzordeak osaturiko *Digital Innovation Hubs* katalogoaren barruan dago BDIH. Katalogo horretan parte hartzeak aukera ematen du Europako beste *Digital Innovation Hub* batzuekin lankidetzan aritzeko, baita eskualdeen arteko lankidetza sustatzeko eta Europako DIHen sare zabal bat sortzeko ere.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da adjudikaziodunak hainbat zerbitzu ematea: Basque Digital Innovation Huba (BDIH) kudeatzea, nodo aktiboen eskaria aktibatzea, nodo berriak sortzen laguntzea eta 2021ean BDIHa Europan posizionatzeko lan egitea.

Horretarako, lan-eremu hauek identifikatzen dira, kontratuaren helburu nagusiarekin lotuta:

- BDIHaren eskaria aktibatzeko laguntza;
- BDIHa Konexio laguntza-programaren idazkaritza teknikoa;
- BDIHaren partzuergoa koordinatzen laguntzea;
- BDIHa Europan posizionatzen laguntzea.

3.- GAUZATU BEHARREKO JARDUEREN DESKRIBAPENA

Kontratu honen bidez, SPRIri zerbitzu emango zaio, betiere preskripzio teknikoen plegu honi eta administrazio-klausula partikularren pleguari jarraikiz; halaber, betetzekoak izango dira kontratazio-organoak, agintaritza eskudunak edo, hala dagokionean, kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak ere.

Erakunde lizitatzaileek proposatu behar dituzten ekintzen artean, eta sor daitezkeen beste batzuk baztertu gabe, nahitaez zehaztu beharko dira honako lan-sorta hauetan deskribatutakoak:

1. BDIH-AREN ESKARIA AKTIBATZEA

- 1.1.- Beharrezko edukiak eta dokumentazioa sortzea, BDIHak enpresa-eskaerari eta erabilera-kasuen kudeaketari begira egiten duen lanaren gaineko komunikazioa gauzatzeko.
- 1.2.- ETE-entzako jardunaldi teknologikoak egiteko behar diren jarduerak planteatzea eta gauzatzea BDIHko kideekin lankidetzan, horiek baitira dagozkien nodoen aktiboen jabeak.
- 1.3.- BDIHak eskaintzen dituen zerbitzuen onuradun izan daitezkeen enpresa berriak erakartzen laguntzea, beharrezkoa denean bazkide estrategikoen sarea erabiliz.

2. BDIH KONEXIO LAGUNTZA-PROGRAMAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA.

- 2.1.- SPRIri programa kudeatzen eta ebaluatzen laguntzeko jarduerak.
- 2.2.- ETE-en eta aktiboen jabe diren BDIHaren kideen arteko bitartekaritza-jarduerak.

3. BDIH PARTZUERGOAREN KOORDINAZIOA BABESTEA

- 3.1.- SPRIk eta BDIHko kideek osatutako partzuergoa kudeatzen eta koordinatzen laguntzea (nodo berriak sortzea, agente eta/edo komunikazio aktibo berriak sartzea, bilerak, eta abar).
- 3.2.- Emaitza teknikoei eta ekonomikoei buruzko txostenak egitea, partzuergoko kide guztien informazio guztia bilduz.
- 3.3.- Bazkide estrategikoen sarea kudeatzen laguntzea. Sare hori dinamizatzea.

4. BDIH-AREN EUROPAKO POSIZIONAMENDUA BABESTEA.

- 4.1.- Europako Batzordearekin interakzioa lortzeko laguntza-zerbitzuak.
- 4.2.- Nazioarteko posizionamendu-jardueretarako dokumentu-euskarria.
- 4.3.- Nazioarteko aliatuekin eta beste EDIH batzuekin (European Digital Innovation Hubs) lankidetzan aritzeko jardueren euskarria.

Jarraian, lan-sorta bakoitzean egin beharreko jarduerak zehazten dira:

1.- BDIH-AREN ESKARIA AKTIBATZEA.

1.1.- Beharrezko edukiak eta dokumentazioa sortzea, BDIHak enpresa-eskaerari eta erabilera-kasuen kudeaketari begira egiten duen lanaren gaineko komunikazioa gauzatzeko

Lan-sorta honetan, adjudikaziodunak BDIHaren posizionamendua lortzeko beharrezko edukiak eta dokumentazioa sortu beharko ditu; zehazki, haren nodo aktiboei dagokiena, enpresa txikiei eta ertainei laguntzeko erreferente gisa, eta, hala, lotutako teknologien erabileran aurrera egin dezaten.

Adjudikaziodunak eduki eta dokumentazio hauek sortu beharko ditu (baliteke SPRIk informazio gehiago ere eskatzea):

- *Artikuluak, prentsa-oharrak*

Adjudikaziodunak edukia landu beharko du BDIHari buruz sor daitezkeen informazio-beharrei erantzun ahal izateko, hala nola artikuluak, prentsa-oharrak, sare sozialetan argitaratzeko aipamenak eta halako beste hainbat idaztea.

- *Aurkezpen komertzialak*

Adjudikaziodunak gutxienez lau aurkezpen komertzial egin beharko ditu: lehendabizikoa, zerbitzuaren hasieran; bigarren eta hirugarren aurkezpen eguneratuak kontratuaren bigarren eta hirugarren hiruhilekoan, gutxi gorabehera; eta laugarren aurkezpena proiektuaren azken hiruhilekoan, aurrekoak baino aurreratuagoa. Bertsio horietako bakoitza gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egin behar da. Aurkezpen horien edukiek bat etorri behar dute orain arteko nodoen filosofiarekin eta definizioarekin.

Material horiek babestuta egon behar dute, hirugarrenek ez ditzaten editatu eta, ondorioz, edukiak aldatu eta/edo desitxuratu.

Material horien maketazioak BDIHaren patroiei eta irudi korporatiboari erantzungo die, edo SPRIk zerbitzuaren hasieran berariaz adierazitako beste edozein irudiri.

SPRIk orain arteko dokumentazio garrantzitsu guztia emango dio adjudikaziodunari, aurkezpena egiten laguntzeko. SPRIk oniritzia emango die sortutako materialei zabaldu aurretik, eta .pptx eta .pdf. formatuan entregatu beharko dira.

- *Arrakasta-kasuak*

Adjudikaziodunak 20 arrakasta-kasu prestatuko ditu gutxienez, honako errekerimendu hauekin:

- Prestatu beharreko kasuek nodoen eta aktiboen zorro orekatua estali behar dute.
- Nodoen aktiboen jabeek aurretik izandako esperientziatik sortuko dira arrakasta-kasuak.
- Adjudikaziodunak egiaztatu beharko du baduela aipatutako enpresaren edo enpresen baimena, kasuak zabaltzeko. Baimen hori baliozkotzeko, baimenaren kopia bat eman beharko dio SPRIri.

Adjudikaziodunak edukiak diseinatuko eta homogeneizatuko ditu. Edukiei dagokienez, arrakasta-kasuek teknologiatik harago dauden alderdiak bildu behar dituzte, eta barnean hartu behar dituzte aplikatutako teknologiek sortutako etekinak eta/edo errentagarritasuna, baita teknologia horiek baliatzen dituzten enpresen merkatu-posizionamendua hobetzeko potentziala ere.

Adjudikaziodunak entregatu beharreko arrakasta-kasu bakoitzak bi eduki izango ditu:

- Dokumentu idatzi bat, arrakasta-kasua deskribatuko duena; adjudikaziodunak proposatuko ditu jaso beharreko edukiak, betiere plegu honetan identifikatutako gutxieneko edukietan oinarrituta. Kasuaren bertsio idatzi bakoitzak gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez egon beharko du.
- Kasu horren gaineko azalpen-bideo bat grabatzeko edukia sortzen eta koordinatzen laguntzea (gutxienez 4 minutukoa). Bideoak EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango dira, eta guztiek ere azpitituluak izan beharko dituzte (euskaraz edo gaztelaniaz, bideoko audioaren arabera, eta ingelesez), BDIHaren xede diren enpresa guztiek ulertu ahal izateko (euskaldunak, estatukoak eta nazioartekoak). Adjudikaziodunak kontratatuko du bideoak grabatzeko eta editatzeko ikus-entzunezko enpresa.

    - *Nodoen eta aktiboen bideoak*

Adjudikaziodunak gutxienez sei bideo egingo ditu BDIHaren nodoei buruz. Adjudikaziodunak kontuan hartu beharreko alderdiak, ikus-entzunezko material horiek egiteari dagokionez:

- Nodoen arduradunen parte-hartzea ez ezik aktiboen jabeena ere bermatu beharko du.
- Materialek bosna minutu baino gehiago izan behar dituzte.
- Bideoak gaztelaniaz egin behar dira, euskarazko zein ingelesezko azpitituluekin.
- Adjudikaziodunak kontratatuko du bideoak grabatzeko eta editatzeko ikus-entzunezko enpresa.

1.2.- ETE-entzako zabalpen-jardunaldi teknologikoak egiteko behar diren jarduerak planteatzea eta gauzatzea BDIHko kideekin lankidetzan, horiek baitira dagozkien nodoen aktiboen jabeak.

Jardunaldi teknologikoak BDIHaren funtsezko zerbitzua dira, beren produktuetan eta produkzio-prozesuetan nodoen esparruko teknologiak aplikatzeko eta erabiltzeko interesa duten enpresei laguntzeko.

Adjudikaziodunak jarduera hauek egingo ditu gutxienez, nodo aktiboekin loturik BDIHa hedatzeko jardunaldi teknologikoen zerbitzua sustatzeko:

- Enpresek jardunaldietan parte hartu ahal izateko prozedura diseinatzea. Prozedurak honako alderdi hauek bermatu beharko ditu:
    - Jardunaldien eduki teknikoa diseinatzen laguntzea.
    - BDIHaren jomuga den eta hedapen-jardunaldi teknologikoetara erakarri nahi den enpresa-taldea identifikatzeko diseinu bat.
    - Hautagaiak hautatzeko eta onartzeko irizpideak zehazten dituen diseinua.
    - Behar adina publizitate eta gardentasun, interesdunek jardunaldietan parte hartu ahal izateko egin beharreko izapideak ezagutu ahal izan ditzaten.

- Jardunaldiak antolatzea eta gauzatzen laguntzea. Adjudikaziodunaren egitekoak, jardunaldi horiek antolatzeari eta egiteari dagokionez:
    - Adjudikazioduna arduratuko da parte-hartzaileak erakartzeaz.
    - Jardunaldiak antolatzen lagunduko du, aktiboen jabeak koordinatuz.

- Egiaztatuko du betetzen direla zehaztutako baldintza espezifikoak, eta bertaratzearen jarraipena egingo du.
- Adjudikazioduna arduratuko da gogobetetze-galdetegiak helarazteaz eta jasotzeaz.
- Jardunaldien emaitzen eta emaitzen berri emango dio SPRIri.

- Jardunaldien gauzatze teknikorako kontratazioak egingo ditu eta beharrezko kostuak ordainduko dizkie aktiboen jabeei.
  - Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da jardunaldien gauzatze teknikorako kontratazioak egitea eta beharrezko kostuak ordaintzea aktiboen jabeei.

Adjudikaziodunak gutxienez 10 jardunaldi egiteko laguntza emango du. Adjudikaziodunak lortu beharreko helburu gisa, jardunaldi horietako bakoitzean gutxi gorabehera 20 enpresaren partaidetza izan behar da.

Lanaldiek baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:

- Nodoen aktiboen jabeek ematen dituzte ikastaroak, eta adjudikaziodunaren kontura izango da horiek kontratatzea eta aktiboen jabeei ordaintzea.

- Emandako lanaldia nodoaren parte diren aktiboen erabileran oinarritu behar da; beraz, aktiboen jabeen instalazioetan egingo da.

- Nodoen teknologiekin zerikusia duten ikertzaile adituek emango dute jardunaldia.

- Lanaldi teknikoak 8 eta 16 ordu artekoa izan behar du gutxienez.

- Parte-hartzaileen bertaratze-kontrola egin behar da. Zerbitzu horren emaitzak kontabilizatze aldera, parte-hartzaileak jardueraren hasieratik amaierara bitartean egon beharko du, bertaratutzat jo ahal izateko.

- Nodoaren helburuak aintzat harturik garatu behar dira jardunaldiak. Ez dira onargarritzat joko lehendik egindakoa aprobetxatzen/egokitzen duten programak, nola eta ez duten ekartzen ezer bereizgarririk.

SPRIk oniritzia emango die proposatutako jardunaldien programei eta bertaratutakoen zerrendari.

Administrazio-klausulen pleguan zeregin horretarako deskribatutako ordainsariak ordaintzeko (75.200 euro), funtsezko elementua da deskribatutako baldintzetan egitea aipaturiko lanaldiak edo, hala badagokio, SPRIk onargarritzat jotzen dituen moduan egitea. Hori horrela, eskainitako prezio osoaren % 4,7 gutxiago ordainduko dio SPRIk adjudikaziodunari hamar lanaldi horietatik egiten ez den lanaldi bakoitzeko, edozein izanik ere ez egitearen arrazoia. Kalkuluen arabera, aktiboen jabeen kontratazioa aurrekontu-partida horri dagokion zenbatekoaren % 90 ingurukoa izan daiteke.

Nodo bakoitzaren hedapen-jardunaldi teknologikoak gutxienez hamar data desberdinetan gauzatuko dira, kontratu honen indarraldiaren barruan.

1.3.- BDIHak eskaintzen dituen zerbitzuen onuradun izan daitezkeen enpresa berriak erakartzen laguntzea.

Adjudikaziodunak BDIHaren zerbitzuen onuradun izan daitezkeen enpresa berriak erakartzeko lanak egin beharko ditu. Besteak beste, hauek izan daitezke:

- SPRIren datu-baseetan laguntza-programetan ageri diren enpresekin harremanetan ipintzea (posta elektronikoz edo telefonoz, beharrezkotzat jotzen bada).

- Hedapen-jardunaldietan, jardunaldi teknikoetan edo BDIHarekin loturik antolatu daitekeen edozein ekitalditan parte hartu duten enpresekin harremanetan ipintzea, gogobetetze-inkestetan emandako informazioa kontuan hartuz.

- Gertueneko enpresekin harreman zuzena duten BDIHko bazkide estrategikoekin harremanetan jartzea.

Harremanetan ipinitako enpresen eta harremanetarako pertsonen zerrendak aurkeztu beharko dira, egoera zein den adieraziz, eta gutxienez 100 enpresa berri jaso beharko dira.

Atal honetan azaldutakoari dagokionez, adjudikazioduna arduratuko da datuak babesteko araudia betetzeaz.

2.- BDIH KONEXIO LAGUNTZA-PROGRAMAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA.

Adjudikazioduna izango da BDIH Konexio laguntza-programaren idazkari teknikoa (https://www.spri.eus/laguntzak/bdih-konexio/).

Programaren Idazkaritza Teknikoak bi jarduera mota aurreikusten ditu:

2.1.- SPRIri programa kudeatzen eta ebaluatzen laguntzeko jarduerak

SPRIren barruan programaren barne-kudeaketarako eta jasotako proiektuak ebaluatzeko euskarriarekin lotutako jarduerak:

- Deialdia kudeatzea.
- Proposamenak jasotzea eta aztertzea. Zuzentzen laguntzea (beharrezkoa den kasuetan).
- Proposamenen ebaluazio teknikoa.
- Ebazpenaren euskarria.
- Deskarguak jaso eta aztertzea (likidazio-txostenak).
- Egikaritzeari eta emaitzei buruzko txostena.

Proiektuaren hasieran, adjudikaziodunak jarduera horien xehetasunak zehaztuko ditu SPRIko arduradunekin, eta, beharrezkoa dela iritziz gero, erantzun eraginkor bat emango die era horretako programak kudeatzeko jarraitzen diren prozedurei. Gainera, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Proiektuen zerrenda: Adjudikaziodunak proiektuen egoeraren zerrenda eguneratua helaraziko dio SPRIri, proiektuan zehaztutako maiztasunarekin.

- Programaren azken txostena; adjudikaziodunak egikaritze-txostena eta programaren emaitzen txostena egingo ditu. Prestatu beharreko txostenak bi helburu bete behar ditu: alde batetik, programaren emaitzen ikuspegi orokorra ematea, parte-hartzeari, erantzundako beharrei eta emaitzei dagokienez, eta, bestetik, egindakoaren kanpoko administrazio-berrikuspena ahalbidetuko duen beharrezko informazioa ematea. Horretaz gainera, programaren aurreko deialdietako emaitzak alderatu eta integratuko dira, txosten metatu bat izateko.

2.2.- Enpresen eta aktiboen jabeen arteko bitartekaritza-jarduerak

Bitartekaritza-jarduera horien bidez, enpresei laguntza eman nahi zaie beren proiektua gauzatzeko egokiak diren BDIHko eragileekin harremanetan ipintzeko, aholkularitza-proiektuak edo kontzeptu-probak behar bezala definitu eta gauzatuko direla bermatzeko, bai irismenaren ikuspegitik, bai onuradunen beharrei erantzuteko egokitasunaren ikuspegitik.

Adjudikaziodunak proiektu honetarako SPRIko arduradunekin adostuko du eskatzaile izan daitezkeenen dibulgazio-, informazio- eta laguntza-beharrei erantzuteko sistematika aproposena, eta sistema horren bidez ipiniko dira harremanetan haien premiei erantzuteko BDIHko agente egokienekin.

Ikus daitekeenez, laguntza-programa baten Idazkaritza Teknikoaren ohiko jarduerez gainera, kasu honetan adjudikaziodunak bitartekaritza-lana egin behar du eskainitako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, eta egiaztatzeko horrek erantzuten diela ETE onuradunek planteatzen dituzten beharrei. Aurreikuspenen arabera, adjudikaziodunak gutxienez 30 enpresari eman behar die zerbitzu hori.

Laguntza-programa hori abian jartzea funtsezko elementua da Idazkaritza Teknikoaren lanok egiteko. Hori horrela izanik, SPRIk berea izango du adjudikaziodunari zerbitzua martxan ipini dela behar besteko aurrerapenez jakinarazteko eskubidea. Hala, laguntza-programa hori aktibatzen ez bada, adjudikaziodunak ez ditu hasiko dagozkion lanak, eta kontzeptu horren truke eskainitako prezio osoaren % 11 jasotzeari utziko dio.

3.- BDIH PARTZUERGOAREN KOORDINAZIOA BABESTEA

3.1.- SPRIk eta BDIHko kideek osatutako partzuergoa kudeatzen eta koordinatzen laguntzea (nodo berriak sortzea, agente eta/edo komunikazio aktibo berriak sartzea, bilerak, eta abar)

Adjudikaziodunak jarduera hauek egingo ditu gutxienez, BDIHren koordinazioa gauzatzeko eta BDIHeko kideen arteko elkarrekintza zuzena ziurtatzeko:

- Plangintza- eta koordinazio-lanetarako informazioa garatzea eta kudeatzea, kideen arteko komunikazio dinamikoa errazteko.

- Partzuergoko kideen artean akordioak eta kontratuak idazten, biltzen eta sinatzen direla ziurtatzea.
- Proposatzen den entregagaien planean epeak eta helburuak betetzen direla egiaztatzea.
- Jabetza intelektualeko eskubideei lotutako alderdien kudeaketa (beharrezkoa izango balitz).
- Kideen arteko komunikazio-estrategia dinamikoak –horretarako, bilerak, bideokonferentziak, posta elektronikoz helarazitako komunikazioak, telefonoa eta abar baliatuz–.
- Bilerak prestatzea eta koordinatzea: behar den materiala taxutzea (gai-zerrenda, bileren aktak, eta abar), bai eta kideen artean banatzea ere.
- Aldizkako txostenak prestatzea eta banatzea.
- Partzuergoaren eta administrazio publiko eskudunaren arteko elkarrizketan laguntzea (Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Europako Batzordea, eta abar).
- Kide eta/edo aktibo berriak BDIHn biltzeko laguntza eskaintzea (beharrezko informazioa betetzeko laguntza).
- Aktiboei, kideei eta nodoei buruzko informazioa eguneratzea BDIHaren aplikazio informatikoan eta SPRIren webgunean.

3.2.- Emaitza teknikoei eta ekonomikoei buruzko txostenak egitea, partzuergoko kide guztien informazio guztia bilduz.

Adjudikaziodunak exekuzio teknikoari eta ekonomikoari buruzko txostenak egin beharko ditu, BDIHko kide guztiek emandako informazioarekin. Hauek dira dokumentazio horretan jaso beharrekoak:

- Helburuak eta egindako jarduerak bete direla justifikatzeko memoria teknikoak.
- Justifikazio-memoria ekonomikoak, hala nola kostuen egoerari buruzko ziurtagiriak (ikuskaritza), kobrantzen eta ordainketen justifikazioa, kontratuak betetzeari buruzko txostena, hitzarmenak eta/edo akordioak betetzeari buruzkoa, eta abar.
- Eska daitezkeen bestelako dokumentu eta ziurtagiriak.

BDIHaren jardueraren justifikazio tekniko eta ekonomiko hori behar bezala egin ahal izateko, adjudikaziodunak eginbehar hauek izango ditu:

- Informazioa entregatzeko daten berri ematea BDIHko kideei, baita bete beharreko txantiloia aurkeztea ere.
- Partzuergoko kide guztiei informazioa eskatzea, behar besteko aurrerapenarekin.
- Jarraipena egitea, lortutako informazioa eta edukia berrikustea eta egiaztatzea eduki hori egokitzen dela ezarritako helburuetara, denboraz eta formaz.
- Lortutako dokumentuak eta informazioa ezarritako estandarren araberako formatuan biltzea (dokumentazioa homogeneizatzea).

Ondoren, adjudikaziodunak dagokion jarduera deskargatzeko txostena egingo du, zeina aldez aurretik ezarritako epean aurkeztu beharko baita. Era berean, atzeraelikadura eskainiko die bazkideei, txostenaren ondorioetatik lortutako ikaskuntza sendotzeko.

SPRIk eskatutako formatuan entregatuko da txosten hori, eta, gainera, egikaritzeko erabilitako datu-basea entregatu beharko da, erraz ustiatzeko moduan.

3.3.- Bazkide estrategikoen sarea kudeatzen laguntzea. Sare hori dinamizatzea.

Esperimentatzeko, baliozkotzeko, prestatzeko eta ikertzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten kideen jarduera osatzeko, BDIHk hainbat bazkide estrategiko ditu, eta horiek guztiek babesa ematen diote euskal industriari, eraldaketa digitala eta jasangarria bultzatzeko zerbitzuak eskainiz hainbat alorretan, hala nola prestakuntzan, finantzaketa-iturriak bilatzen eta berrikuntza-ekosistema eta -sareak osatzen.

Adjudikaziodunak, gutxienez, bazkide estrategikoen sarea kudeatzeko eta dinamizazioa ziurtatzeko beharrezko jarduera hauek egingo ditu:

- Plangintza- eta koordinazio-lanetarako informazioa garatzea eta kudeatzea, inplikaturiko bazkideen arteko komunikazio dinamikoa errazteko.
- Bazkide estrategikoekin akordioak idazten, biltzen eta sinatzen direla ziurtatzea.
- Bazkideen arteko komunikazio-estrategia dinamikoak –horretarako, bilerak, bideokonferentziak, posta elektronikoz helarazitako komunikazioak, telefonoa eta abar baliatuz–.
- Bilerak prestatzea eta koordinatzea: behar den materiala prestatzea (gai-zerrenda, bileren aktak, eta abar), bai eta bazkideen artean banatzea ere.
- Aldizkako txostenak prestatzea eta banatzea.

4.-. BDIH-AREN EUROPAKO POSIZIONAMENDUA BABESTEA

- 4.1.- Europako Batzordearekin interakzioa lortzeko laguntza-zerbitzuak.
- 4.2.- Nazioarteko posizionamendu-jardueretarako dokumentu-euskarria.
- 4.3.- Nazioarteko aliatuekin eta beste EDIH batzuekin (European Digital Innovation Hubs) lankidetzan aritzeko jardueren euskarria.

4.1.- Europako Batzordearekin interakzioa lortzeko laguntza-zerbitzuak

Helburua da, batetik, Europako Batzordearekin lankidetzan aritzeko eskema sistematizatu bat ezartzea, eta, bestetik, lankidetza hori gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak definitzea.

Lankidetza-prozesuaren egiturak ataza hauek izango ditu:

1- BDIHaren eta Europako Batzordearen lankidetzarako ibilbide-orriaren jarraipena. BDIHaren jarduerak monitorizatzeko Europako Batzordearen baldintzatzaileetan oinarrituta, lankidetzaren esparruko ekintzen jarraipena egingo da, errendimendu-adierazleen zerrenda zehatza gauzatuko da (KPI, Key Performance Indicators), kontrol-mugarriak aztertuko dira (milestones), eta kalitate-berrikuspenak egingo

zaizkie partzuergoko kideei eta bazkideei adierazle horiek betetzen direla bermatzeko (KPI).

2- Beharrezko deskargu-txostenak egitea, sortu den jarraipen-informazio guztia bilduta. Europako Batzordeak ezarritako epeen arabera egingo da. Adjudikaziodunak sei hilean behingo edo urteko txostenak entregatu beharko ditu, Europako Batzordearekin egin daitekeen kontratu baten denbora-esparruaren barruan. Azken batean, jarduera hauek egin beharko ditu:
   - Dagozkion adierazleak atzematea, horien jarraipena egitea eta eguneratzea.
   - Eskatutako justifikazioa idaztea eta BDIHak garatutako lanak deskribatzea, bai eta BDIHko kideen informazioa berrikustea eta integratzea ere.
   - Entregagaiak prestatzea eta bidaltzea, Europako Batzordeak adierazitako plataformaren bidez.
   - Deskargu ekonomikoa egitea eta BDIHko kideei orientazioa eta aholkularitza ematea.
   - Europako Batzordeak eskatutako gogobetetze-inkestak edo bestelako txostenak egiten laguntzea.

Ingelesez prestatu beharko da dokumentazio hori (aurkezpenak, txostenak, eta abar).

4.2.- Nazioarteko posizionamendu-jardueretarako dokumentu-euskarria

Adjudikaziodunak BDIHaren nazioarteko posizionamendua sendotzeko beharrezko euskarri-dokumentazioa prestatu beharko du, SPRIk beste EDIH batzuekin edo Europako edo nazioarteko beste eragile batzuekin dituen bileretara eta ekitaldietara joatea babestuz.

Ingelesez prestatu beharko da dokumentazio hori (aurkezpenak, txostenak, eta abar).

4.3.- Nazioarteko aliatuekin eta beste EDIH batzuekin (European Digital Innovation Hubs) lankidetzan aritzeko jardueren euskarria

Adjudikaziodunak laguntza eman beharko du nazioarteko aliatuekin eta Europako beste EDIH batzuekin lankidetzan eta harremanetan aritzeko (bilerak antolatzea, elkar ulertzeko memorandumak sinatzea, beharrezko informazioa trukatzea, eta abar), irudituz gero interesgarria eta beharrezkoa dela SPRIrekin lankidetzan aritzea. Ingelesez prestatu beharko da dokumentazio hori (aurkezpenak, txostenak, eta abar).

Atal honetan deskribatutako Idazkaritza Teknikoaren lanak gauzatzeko, ezinbestekoa izango da BDIHa Europako DIH gisa hartzea eta Europa Digitala Programaren onuradun izatea. Beraz, SPRIk berea izango du adjudikaziodunari zerbitzua martxan ipini dela behar besteko aurrerapenez jakinarazteko eskubidea. Ez bada aktibatzen Europar Batasunarekin ezarri beharreko harreman hori, adjudikaziodunak ez ditu hasiko dagozkion lanak, eta kontzeptu horren truke eskainitako prezio osoaren % 7 jasotzeari utziko dio.

4.- ENTREGAGAIAK

Aurreko ataletan adierazitakoak dira proiektuaren esparruan eskatzen diren gutxieneko entregagaiak. Plegu honetan aipatzen ez diren entregagaiei dagokienez, lizitatzaileek eskaintzan sartu ahal izango dituzte, baldin eta benetako balio erantsia ematen badute.

Erabat zehaztuta egon ez arren, entregagaitzat jotzen da adjudikaziodunak egindako zernahi artxibo –eta halaxe ipini behar dira kontratuaren arduradunaren eskura, eskatuz gero–, nahiz eta partzialak eta behin-behinekoak izan, betiere entregagai nagusiak gauzatzeko laguntza zuzen edo zeharkako gisa baliatu badira. SPRIko kontratuaren arduradunak adierazten duen formatu editagarrian entregatuko dira fitxategi guztiak.

Era berean, SPRIren eskura ipini beharko dira proiektutik kanpoko dokumentuak, txostenak, artxiboak, azterlanak, datu-baseak, eta abar, baldin eta nolabaiteko ekarpena egin badute proiektuko entregagaiak gauzatzeko. Adjudikaziodunak behar bezala justifikatu beharko du artxibo horietako edozein entregatzeko ezintasuna, eta SPRIk onartu egin beharko du.

Adjudikaziodunak berak eginak izango dira eduki, grafiko eta irudi guztiak, eta, bestela, legezko jabeen idatzizko baimena eduki beharko dute, SPRIk geroago argitara ditzakeen dokumentuetan erabili ahal izateko.

5.- EGIKARITZE-TXOSTENAK ETA -EGUTEGIA

Lizitazio honen adjudikaziodunari esleitutako baliabideen kudeaketa ekonomikoarekin lotuta, adjudikaziodunak kontuan hartu beharko ditu esleitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren kostuak, sortu beharreko materialei, eman beharreko prestakuntza-ikastaroei eta abarri dagokienez.

Adjudikaziodunak kostuen aurreikuspen eguneratua aurkeztuko du hilero, SPRIk egoeraren berri izan dezan eta baliabideak modu egokienean bideratu ditzan beharrezkoa den kasuetan.

Plegu honetako erakunde lizitatzaileek proposamen bat bildu beharko dute, eskatutako entregagai bakoitzarekin lortu nahi dituzten helburuekin. Era berean, gutxi gorabeherako zenbatespen bat egingo dute horietako bakoitzerako aurreikusten duten aurrekontuarekin, bai eta hiruhileko bakoitzeko helburuen eta kostuen egutegi bat ere, proiektuaren ikuspegi orokorraz jabetu ahal izateko.

Adjudikaziodunak BDIHaren aginte-taulan aipatutako adierazleak osatuko ditu, baita lanak gauzatzean egokitzat jotzen diren beste batzuk ere.

Adjudikaziodunak egitasmoaren egoerari buruzko txosten bat aurkeztuko dio SPRIri gutxienez hiru hilean behin, alderdi hauek adieraziz:

- Aurreikusitakoen artetik lorturiko zerbitzu-helburuak.
- Prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak gauzatzeko gastatutako baliabide ekonomikoak eta oraindik erabilgarri daudenak.
- Aurreikusitako helburuak lortzeko alarmak identifikatzea.

- Aurreikusitako emaitzak lortzea ahalbidetuko duten zuzenketa-ekintzen proposamena, egoki izanez gero.

Proiektuak aurrera egin ahala, SPRIk segimendua maizago eginarazi ahalko dio adjudikaziodunari, preskripzio teknikoen plegu honetan gutxienez hiru hiletik behin egitea zehazten bada ere. Era berean, adjudikaziodunak ere proposatu ahal izango dio SPRIri segimendua maizago egitea, preskripzio teknikoen plegu honetan gutxienez hiru hiletik behin egitea zehazten den arren.

Zerbitzua 2021eko abenduaren 31 bitartean eman beharko da, urtebetez luzatzeko aukerarekin. Lan-plana kontratazioaren hasieran finkatuko da.

Adjudikaziodunak entregagaiak aurkezteko izango dituen epe partzialei dagokienez, proiektua abiarazteko hasierako bileran edo proiektua gauzatzen den bitartean zehaztuko dira.

Lizitatzaileek beren proposamenetan aurkeztu ahal izango dute gutxienekoak baino jarduera-kopuru handiagoa gauzatzea eta eskatutako gutxienekoak baino emaitza hobeak lortzea.

6.- PROIEKTURA ESLEITUTAKO LANGILEEI ESKATUTAKO PROFIL PROFESIONALA

Adjudikaziodunak beharrezko giza baliabideak esleitu beharko ditu, kontratuaren xede diren lanak kalitatez gauzatzen direla bermatzeko.

Kontratua behar bezala egikaritzeko, beharrezkotzat jotzen da profil hauek betetzen dituen lantalde bat izatea:

- Proiektuaren arduraduna, gutxienez 10 urteko esperientzia duena.
- Aholkulari senior espezialistak, gutxienez 5 urteko esperientzia dutenak.
- Teknikariak, gutxienez 3 urteko esperientzia dutenak.

Balioetsiko da taldean beste hainbat profiletako profesional gehiago ere izatea, gaitasun osagarriak dituztenak eta beste hainbat diziplinatakoak, eta, SPRIk beharrezkotzat jotzen duenean, zereginak aldi berean egitea ahalbidetzen dutenak.

7.- KONTRATUAREN GAUZAPENA GAINBEGIRATZEA

Zuzendaritza sustatzaileak eta SPRIk izendatutako kontratuaren arduradunak gainbegiratuko dute kontratu honen gauzatze-maila, eta egoki iritzitako bilerak deitu ahal izango dituzte, kontratatutako zerbitzua behar bezala garatzen dela bermatzeko.